

Irabazi Iturriak:

Gure enpresaren prezioak dinamikoak izango dira, gehienbat, plastikoaren prezioa botila kantitatearen menpe dagoelako, hau da, gero eta botila gehiago merkeagoa izango da. Honekin batera, enpresekin negoziatu egin beharko dugu eta bi enpresen arteko tratua sortu, behar bada.

Adibidez: guk Coca-Colarekin tratu bat egiten dugu eta, tratu honetan, gure enpresak zeinbat botila bidali behar dizkio hilean Coca-Colari eta botila horien truke guk dirua irabazten dugu. Pertsoneri, botila bakoitzagatik dirua emango diegu, hau botilaren tamainaren arabera izango da: botila handi bat(0,75l-1,5l)0,15€ eta botila txiki bat(0,33l-0,75l) 0,10€. Honekin, jenderi birziklatzen animatzen diegu, zeren eta, momentuan dagoen sistemarekin ez dira hainbeste plastikoko botilak birziklatzen.

Erabili egingo ditugun birziklatze makina:

Makina hau Txinatik inportatuko ditugu
Zhengzhou Hento Machinery enpresatik.
Haien prezioa, 2.500€-koa dira.



Gure enpresa sortzeko, sortzaile bakoitzak 3.000€ inguru inbertituko ditugu, proiektu honetan sinisten dugulako, baina, honekin batera, inbertsio bila joango gara beste enpresa batzuetara, esate baterako, All Iron Ventures. Enpresa honek proiektu inobagarriak bilatzen ditu eta haietan inbertitzen du, horregatik, inbertsio bila enpresa honetara ala beste Venture Capital batera joko dugu. Gure enpresa sortzeko, 100.000€-ko hasierako inbertsioa beharko genuke eta ez bagenuke inolako inbertsorarik edukiko, banketxera kreditu baten bila joko genuke. Horrez gain Eusko jaurlaritzaren partetik diru laguntza jaso genezake eusko jaurlaritzak dituen gazte proiektuak kontutan harturik.



Enpresa martxan jartzean, publizitateak dirua irabaztea bilatuko dugu. Publizitatea gure makinetan eta gure web orrian agertuko dira. Horrela gure enpresaren diru iturriak handitzea bilatzen dugu.